

LTD KANALEN ESZENATOKI BERRIA

LTDa sustatzeko Plan berria

Joan den abuztuaren 24ko Ministroen Kontseiluan, LTDa sustatzeko Plan berria onartu zen. Momentuz, Ministerioak ez du Planaren edukiaren informazio zehatzik eman, baina Kontseiluaren web orrian punturik nabarmenenen laburpena kontsulta daiteke:

<http://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/referencias/2012/refc20120824.htm#TDT>)

- Dibidendu Digitala 2013ko abenduaren 31ra aurreratzea.
- TB kanalak murriztea.
- Planetik eratorritako ekintzak aurrera eramateko egutegia.

Ministerioak ISDEFE ingeniari-tz-enpresa kontratatu du Planaren aldaketa hau garatu dezan, eta BOEn behin betiko argitaratzeko unea urri amaierara edo azaro hasierara arte luzatu daiteke.

Zenbait azalpen

Azken garaiotan, LTDaren itzalaldi honek erabiltzaileentzat izan dezakeen kostuari buruzko hainbat albiste agertu dira prentsan, kanalak behar bezala hartzeko antenista bat kontratatu behar delako.

Horri dagokionez, gogorarazten dizuegu, antenizazioari ekin ahal izateko, kanalak aldatzeko prozesuak amaituta egon behar duela (bidali genizuen lehenengo informazio-buletinean azaldu genuen zeintzuk ziren

prozesuaren urratsak). Hori dela eta, momentuz, ez da beharrezkoa inongo ekintza indibidualik egitea horren inguruan.

Ohar garrantzitsua

Udalei gomendatzen diegu ez egiteko inongo ekintza indibidualik, baldin eta ekintza horrek udala konprometituko badu etorkizunean; izan ere, baliteke egindako inbertsioak berreskuratzeko modurik ez egotea, eta, gainera, oraingo kanaletan interferentziak sortzeko arriskua dago, gauzak modu koordinatuan egiten ez badira.

Bilbon, 2012ko irailaren 28an